

NORANTZA

BENITO FIZ

TOPAGUNEKO EUSKALDUN BERRIEN BATZORDEKO ARDURADUNA

«Euskararen normalizazioaren aldeko beste apustu bat da»

Bizkaiko AEKk eta Euskara Elkartearen Topaguneak euskaldun berriei euskal hiztunen komunitatean integratzen laguntzeko proiektua datorren ikasturtean martxan jartzeko asmoa adierazi dute.

AMAIA MUNDINANO

Euskaltegiaren euskara ikasi dutenei bultzada bat eman nahi diete Bizkaiko AEKk eta Euskara Elkartearen Topaguneak, euren egunerokotasunean, ikasitako hizkuntza erabil dezaten. Horretarako prestatzen ari diren proiektuaz hitz egiteko, Benito Fizekin izan gara.

Zer dela eta erabaki duzue euskaldun berrien inguruko proiektu bat martxan jartzea?

Egia esan, ez gara halako proiektu bat martxan jartzeko dugun lehenak. Izan ere, Euskal Herriko beste herrialde batzuetan, baita Bizkaian ere, erakunde ezberdinek antolatutako antzeko ekimenak burutu izan dira. Bizkaian dagokionez, halako ekimen gutxi daude eta daudenak oso ahul. Herrialde hau helduen euskalduntze-alfabetatze horretan ikasle gehien dituen delako kontuan hartuta, halako zer edo zer egin beharra zegoela pentsatu genuen, hemengo euskaldun berriak euskal hiztunen komunitatean integratu ahal izateko. Gainera, euskararen normalizazio prozesuan hizkuntzaren ezagutza zabaltzeko garrantzi handia du. Azken finean, euskararen normalizazioaren aldeko beste apustu bat da.

Zeintzuk dira euskaldun berriek izaten ohi dituzten arazoak?

Lehenik eta behin, euskaldun berri kontzeptua oso konplexua dela pentsatzen dut. Izan ere, euskaldun berri horietan euskararen ezagutza maila ezberdinetako jendea sartzen baita: euskaraz etxean ikasi dutenak baina alfabetatu

gabeak direnak, ikastolan ikasi dutenak, euskaldun berri osoak... Hori dela eta, gure lana batik bat 16 urteik aurrera euskaltegiaren euskaraz ikasten dutengana bideratzen dugu. Horiek izaten dituzten arazo nagusiak motibazioari dagozkionak dira, lehenik eta behin. Izan ere, euskaltegiaren euskaraz ikastera hurbiltzen den jendea motibazio ezberdinekin hurbiltzen da. Bestalde, lotsa, beldura eta konplexu asko izaten dira euskaraz hitz egiteko gairain. Eta, dudarik gabe, hori bukatzea da gure nahia.

Proiektuaren helburuak, beraz, zein izango lirake?

Datorren



Monika Del Valle

ikasturterako martxan jarri nahi ditugun lau proiektu pilotoen helburua euskaldun berriek ikasi duten hizkuntza egunerokotasunean eta era normal batez erabiltzeko behar duten bultzada eskaintzea da, eta proiektuak Elorrioren, Getxon, Trapagararen eta Deustuan gauzatuko dira momentoz. Euskaldun berriek euskararen normalizazio prozesuan euren betekizuna dute eta ikasi duten hori zerbituetarako ikasi dutela ikusarazi behar diegu, hizkuntza hori egunerokotasunean bizirik dagoela eta erabiltzeko aukera ematen dien euskal hiztunen komunitate bat dagoela, hau da, euskara euskaltegiaren erabiltzen den hizkuntza baino gehiago dela. Gainera, proiektu hauek, oinarrian euskaldun berriek zuzenduta badaude ere, euskaldun guztiak hartzen dituzte beren baitan.

Proiektu horiek beste herri zein herrialde batzuetara zabaltzeko asmorik al duzue?

Pixkanaka hasi gara lan hau egiten. Beste herri batzuetan ere gauzatuko litzatekeela pentsatzen dugu, baina gutxierekin hasteari egokijagoa deritzogu, gutxierekin baina ondo. Dena den, Bizkaiko prestatu dugun lana bada ere, honetan interesaturik dagoen edonork har dezake parte. Denoi interesatzen zaigun lana da eta, gainera, euskaltegiaren egiten den lanaren fruitua eta emaitzak hobetuz joan behar direla pentsatzen dut. Hemen egingo duguna, ahal den neurrian, Euskal Herri osorako eredu izatea gustatuko litzazuke. Eta, eredu izateaz gain, ahalik eta eredurik gehien eskaintzea.

ZIRTOKA



Xillardegi

Galeuzca

Egun hauetan burutu da Donostia-ko "Koldo Mitxelena" kultur-gunean Castela eta Galeuzca-ren oroitzapenetan eratuak Astea. Lerro hauek idazten ditudan nean, hain zuzen, amaitu gabe dago oraindik.

Oso asmo ona izan da Koldo Izagirre eta Xose Estevez-ena. Eta biok dira, jakinduriare eta biografiare, gaurko Euskal Herrian horrelako ekintza baterako eskain ditzakegun enbaserorek egokienak.

Castela sendagaitza zen, baina ez zuen prentatu. Pio Baroja gauza bera. Baina biokoneta antzak horietan amaitzen dira.

Hizkuntzarekiko atzekimenduan, urrun dago donostiarrak gailuzarrarengandik. Mintza bedi gure lumaren bitartez berriki zendutako Ricardo Carballo Calero idazlea: «O sacramento da galeguidade e a lingua. A lingua e o primeiro, pois, no programa da restauraçom da autenticidade».

Non dira oraindik ere (orain dela urte gehiegi, zoritxarrez...) "Letunia" neure lehenabiziko liburua; ribeiro zuriaren laguntza, eta lanperna onxe berrien usainetan. Eta orduantxe ezagutu nituen Arousa eta Baiona.

Eta geroztik, ez naiz sekula hozt egon Galiziar buruz eta beronen patuaz; eta deplauki aitortu izan dut batzutan Galiza dela nire bigarren aberria. Eta inon ez dudala zauskada boritzagorik sentiduti. Padron-en Rosalariaren etxea behin eta berri bisitatu dudanean baino.

Castelaok, bestalde, bihotzean zeraman Errepublikak Ibenko Federalearen ametsa, eta orango «café para todos» okaztagarri hau... ez dira gauza bera.

Koldo eta Xose: mila esker antz.

AITZINDARIAK

ERRAMUN BELAUSTEGICORRIA

1 8 9 1 1 9 8 1



JINOTEGARINO ZALDIZ ARRIBATU DA; ETA ORAIN, ZENGOEN GAINEAN SEGOVIATAN BARRERA SAN RAFAELEKO KANPAMENDURA IRISTEN ARI DUZU.



BI ASTE TRINKOTAKO SOLASALDIK « CON SANDINO EN NICARAGUA LA HORA DE LA PAZ » LIBURUAN EMANEN DITU 1934EAN.



... he guardado una absoluta realidad en las frases, a fin de que el lector pueda penetrar en la psicología de este extraordinario paladin de la Libertad...

ETA 1933KO Otsailean gizon Libroen jenerala begi aitziñean dauka: CESAR AUGUSTO SANDINO

USTED DEBE SER ESE SEÑOR DE APELLIDO MUY LARGO, QUE NO HAY MANERA DE PRONUNCIAR...



HILABETE ZENBAIT GEROAGO SOMOZAREN MORROIEK GABITUKO ZUTEN OSKATZAILA.

... SANDINO, espíritu delicado y fino, un hombre de acción CONTRA TODO EL PODER DEL IMPERIALISMO. UN VIDENTE.

GURE LAUDIOTARRAK METZIKATA JO ZUEN, ETA HAN «EUZKADI EN LIZMAS» AGERTU 1938AN.